

FUNTSEZKO BALIABIDEAK / RECURSOS CLAVE

Zeintzuk dira beharrezko baliabideak gure enpresa edo proiektuak funtziona dezan?

Zein baliabide ditugu guk besteek (lehiakideek) ez dutena?

Funtsezko baliabideak:

Fisikoak: materiala, lantokia...

Intelektualak edo giza baliabideak: langileen ezagutzak (alemaniera daki, edo oso ingeniari ona da), langileen esperientzia (konpetentzian aritu den langilea gurekin dago orain), gure enpresak dauka patentea...

Finantza baliabideak: (Baliabide propioak, kanpo finantzaketa (maileguak epe luzera edo laburrera)...

Enpresa bat sortzerako momentuan, badaude ezinbestekoak diren baliabide batzuk. Lehenik eta behin, gure enpresa eta produktua aurrera eraman ahal izateko hasierako finantziario bat behar dugu enpresaren kostu guztiak babestu ahal izateko. Kapital bat behar dugu, aurrekontu bat eta diru-erreserba bat larrialdiei edo ezustekoei aurre egin ahal izateko. Baliabide finantzarioak lortu nahi baditugu, hainbeste aurrezki propio inbertitu beharko ditugu, edo gure enpresan inbertituko duten inbertitzaileak bilatu, eta hortik lortu ahal izango dugu gure enpresarentzat izango den kapitala. Bestalde, banketxeren bati maileguak eska diezazkiokegu, gure enpresarentzat den kapital-kopuru bat eman diezagun. Logikoa denez, mailegu hori etorkizunean itzuli egin beharko denez, nahiko garrantzitsua da gure produktuari etekinak ateratzea, enpresaren beraren gastuak nahiz geroago itzuli beharreko zorrak edo maileguak estali ahal izateko.

Bestalde, enpresari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko trebatuta eta gaituta dagoen langile-talde bat izatea ezinbestekoa da. Bai gure produktuaren publizitatea eta marketina kudeatzen aritzen diren langileak, bai aplikazioaren erabiltzaileei eguneko 24 orduetan laguntza eskaintzeaz arduratzen diren langileak. Horregatik, ahaleginak egingo ditugu gure langileek eta bazkideek ahalik eta etekin handiena eman diezaioten gure enpresari eta, jakina, gure produktuari. Aukeretako bat izango litzateke, halaber, bitartean lanean eta gure enpresara gauzak ekartzen ari diren pertsonen prestakuntza-ikastaroak eskaintzea. Horrela, pertsonen baliagarria gerta dakiekeen prestakuntza jasotzeaz gain, lan egiteko eta enpresari aukera gehiago emateko aukera izatea lortuko dugu.

Ez da ahaztu behar gure enpresak establezimendu edo lokal bat behar duela lan egin ahal izateko eta gure aplikazioa % 100ean erabilgarri egon dadin egin beharreko kudeaketa guztiak egin ahal izateko, eta aplikazioaren edozein akatsen aurrean ahalik eta azkarren konpondu ahal izateko. Gure aplikazioari dagokionez, beharrezkoak diren kudeaketak egiteko langile kualifikatuak eta prestatuak izateaz gain, bezeroren batek eskatuz gero aurrez aurreko laguntza eskaintzeko lokal bat ere izango dugu. Ez da beharrezkoa lokal handiegia izatea, nahikoa da bulego txukun bat izatea, enpresako langile guztiak bildu ahal izateko eta komunikazio handiagoa izateko. Erabiltzaileak aplikazioaren langileekin harremanetan jarri ahal izateko, aplikazioak berak jarriko ditu erabiltzaileen eskura gure aplikazioaren telefono-zenbakia eta sare sozialen helbide eta izenak, baita gure bulegoaren helbidea ere, behar duen ororentzat, eta bertatik jarri ahal izango dira harremanetan gurekin eta guk behar duten laguntza eskaini ahal izango diegu. Horrela lortuko dugu jendea pozik

egotea aplikazioaren funtzionamenduari eta aplikazioak edozein zalantza izanez gero erabiltzaileentzat eskaintzen duen euskarriarekin.